
1907

Euskal-itz jostaldien Batzarrea**(Euskal-festen XXVI-garren urtea)**

Elgoibar-ko albiste kondairatsuak

Berreun eta berrogei ta amar pesetako sari bat eta bitezarra

Elgoibar-en irabazitako moldaera

BI ITZ

Irakurleak: **Elgoibarren kondairako eginkizun eta gertamen abek, Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarreak, Elgoibarko Euskal-jaietarako euskal izkribatzallen artean irikizuen indar neurtzerako idatzini-tuan Ez bada uste, irakurle euskaldunak, orri abetan Elgoibarko kondaira oso ta tsit ondo egindako bat billatuko dezutela; zuen eskuetan daukazuten orritalde au, ez da kondaira bat, ez da albiste kondairatsu batzuen pilla tsiki bat baizik.**

Nere Euskal erri biotzeko au gauza guztiz gañetik maite detalako, eta euskerarentzat maitasun eztsitu ta Samurrenak gordetzenditodalako, nai izan det egatsa artu, Euskalerriko kondairaren eta euskeraren alde ondar ale bat ekartzeko. Tsikia da ekarridetan dea, badakit. Badaquit ere ez naizela Elgoibartarrak mereziduten bezelako kondairatzallea, baña

nik nere ezerezean agertunainuan beti prestu nagoala gure erri ta izkuntzaren alde eginbeardana egiteko.

Euskeraz zabaldu bear dira Euskaldunen artean gure eginkizunak. Askok ustedute oribera, baña erderaz esatendute, euskeraz eginbeardala. Euskeraren alde itz asko erderaz, eta euskera gutsi ikustenda Euskalerrian. Ez det nik oben orren azpian bizi nai. Nik nai det piztudedilla euskera nere izkuntza dalako; nik nai det ikasidezagula denak euskera gure izkera dalako; nik nai det, aberats eta beartsu, gazte ta zarrak, denak, euskeraz itzegindezaguta, euskera dalako gure izkuntza. Euskera guztiz aztutzendanean, ausi dedilla eun pusketan gure Gipuzkoa ta izkutatudedilla betiko geiago iñork ikusiko ezduen tokian.

Ara bada emen, euskeraz egiña, nere eskuetatik ateratzendan lenengo liburua. Zuentzat da, Euskaldunak; artuzazute maitasunarekin gazte batek bere izkuntzaren alde dakartzen errenkada abek. Eta iñorentzat baña geiago da zuentzat, Elgoibartarrak; nik eskeintzendizutet gogoz eta biotz biotzetik.

Badakit esandetan baño askoz geiago eta askoz obeto esan litekeala. Nik ezdet geiago esaten, esandetan baña gutsi geiago dakialako, ta ez det obeto esaten, nainukean apaintasunarekin euskera menderatzen ezdetalako.

Baña egindet aldetana. Euskaldun guztiak aldutena egingo baluteke, ez litzake euskera arkitzendan bezela arkituko.

MUJIKAKO GREGORIO.

Ondarribian 1907-ko Uztaillan.

I

Jatorria

Gipuzkoa, gure Probintzi eder eta maite au, ez zan antsiñeko egunetan guk gaur ikustendegun bezelakoa; ez ziran gaurko batasunarekin bere biztanleak bizi, ez zuten bere erriak, orain bezela, gorputz bat egiten; azaltzengan iru puskatan zatitua, eta puska bakoitzak zuen bere

izena. Baskonia zabaltzenan, Gorosabel-ek esatendigunez, (*) Onda-
rribiko ertzetik Jaka-raño, ta emendik, Kalahorra, Monkayo ta Ta-
razonatik igaroaz, jetsitzenan Ebroko ibairano. Bardulia deitzenio-
ten, gaur Pasai ta Deba-ibaiaren artean, eta Hernani ta Legazpi-ren
artean dagoan lurrari. Baita ere ziran Barduliakoak, orain Arabarrak
diran erri abek: Axparrena, San Millan, Salbatierra, Ubarrundia ta
Iruraiz. Karistos deitzenioten Motriko ta Oñatitik Ebroraño-ko to-
kietan biziziranai.

Baskoniako mugapekoak biziziran, len izendatutako Gorosabeli si-
nistu bear baldin badiogu, Bayonako Apezpikuaren mendean; Bardu-
liakoak, Iruña-koaren agintasanaren azpian; eta Karistoak, Kalahorrako
Apezpikua zeukaten eleizako gauzetan nagusi.

Idatzi ditugun itzetatik, errez ezagutzen da, gaur Elgoibarko erria
dana, Karistoak betetzenzuten lurreen zegoala, ta Kalahorrako Apez-
pikuaren mendean erortzenzala.

Baña ikusten ari geran denboretan, Elgoibartik ez zegoan oraindik
erria egin bear zan tokia besterik.

Etse gutsi azaltzenziran, gaurko aldean, Euskal basoetan, eta erak al-
karren urruti, gaur baña bearragoa izanagaitik orduan auzotasuna. Nola
guda zan egun aietan gizonen lana, oituzan au odola gorroto gabe ikus-
tera eta, gogortua biotza ta animaren begiak itsita, beste gizonetan anaia
ikusi bearrean, ikusten zuen bakarrik arerioa, bere etsaia, ta egitenz
alzuen kalte guztia zer edo zer bereganatzen, ostutzen, bizitzaren bea-
rrak betetzeko. Gizon aientzat, zelaietan zebiltzan egaztiak ez zuten
nagusirik, zuaitzetako sagarrak eta orma ondoko matsak lenengo ar-
tzenzitanarentzat ziran; etseko ateak zabalik utzitzenbaziran, erama-
tenezuten zer nai gauza, eta beiñ baño geiagotan gizon basoti aiek bizia
kenduzioten anaien bati, eskaeraren bat ukatzen ziotelako.

Beren agintzak kunplitzera juatenziran bidastia orrelako gaizta-
kerietatik urruti ipintzeko, sortuzan 1.128 garren urtean erlijjiotsu ta
gudartarra zan Tenplarioen ordena. Tenplario abek beren etseak egiteko,
bidastia gaitzune aundienagoetan arkitenziran tokiak billatzenzi-
tuzten eta norbait inguruan agertzenzanean, laguntzenzioten arraikitik
urruti jarri arte. Iraunzuen ordena onek 1312 arte.

(*) «Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa». Lenengo zatia,
190-garren eta jarraitzenduten orri aldeak.

Olasoko San Bartolomerena izantzan Gipuzkoan baita altsatzeko ar-tuzuten toki bat, eta egun aietakoak dira Elgoibarko ondekidatzallearen gañean dauzkagun lenengo albisteak.

Denbora aietan azaltzenzan Olasoko purube ta jauregia, ta bai ta ere erregearen zuzejaundeko San Bartolomeren eleiza. Erregearen zuze-jaundekoa zalako, 1267-an errege Alonso Jakintsuak emantzion zuze-jaundea Olasoko jauregiko jaun Lopez eta Ganboako Juani.

Denbora aietan Olasoko jauregia zan izen eta aberastasun aundikoa, Lopez ta Ganboako Juan, Naparro eta Leongo erresumako etse erre-gezko ta Gebara ta Ganboako etse ta Oñati ta Ayalako jaunen ondo-rengoa, Olasoko Jauregiko alabarekin ezkontzera bertara etortzeak ager-zen digun bezela.

Len esan degun gizon gaizto aiek, lapurreta ta kalte aundiak egi-ten zien Olasoko San Bartolomeren inguruetan, Markinako zelaietan biziziran biztanle bakanai, ta oek, alkartuta bake obean izateagatik eta beren gauzak obeto gordetzeagatik, bestientzako alperrik lanean aritu gabe, eskatuzioten errege Alfonso XI-garrenari erri bat jasotzeko bear-zituzten baimenak. Alfonsok, 1346-ko Lotazillaren 20-an eman zien, eskatuzuten bezela, erri esitu bat egiteko baimena. Orduan, Markina Azpiko zelaietan biziziranak, artu zuten Campo de Elgoibar esaten zi-tzaion lekua, Alfonsok aztarnatuzuen mugapea ta jaiozan Villamay-or de Marquina izendatuzan erria. Erri oni eman zion erregeak Logroño-ko fueron, Mondragoikoak zeukan bezela, alkate izendatze-ko eskubidea ta beste orrelako gallaldi batzuek. Baña gorde zituen beretzat meatzetako urre ta zillarra, ta erriaren mugapean egitenzi-ran olak.

Alfonso XI-garrenaren gallaldia, berriztatu zuten errege abek, toki ta egun abetan; Enrike II-garrenak Burgosen 1367-ko Otsaillaren 7-an; eta onek berak 1379-ko Abuztuaren 10-an; Enrike III-garrenak Ma-driden, 1391-ko Jorraillaren 20-an; Juan II-garrenak, Segobian, 1407-ko Garagarrillaren 6-an, eta onek berak Balladoliden 1420-ko Otsaillaren 15-an; D. Fernando ta D.^a Isabel-ek, Jaen-en, 1489-ko Urriaren 15-an; eta azkenik, Felipe II-garrenak, Madriden, 1563-ko Jorraillaren 15-an.

Erria eginzanean biztanletuzan bertan Andikanoko Lope Garzia, Andikanoko olaren nagusia, ta 1362-ko Azaroaren 18-an egindako agerkaiaren bitartez, eskeñi zan beste biztanle guztiak bezela erriko bearrak altsatzeko bere zatia jartzera.

Esandegu, kondairatzen arigeran erri au, Villa-mayor de Marquina izendatuzutela asieran. Gorosabelek esaten du, 1455-garren urteraño idukizuela izen ori, ta urte orretatik aurrera Elgoibar esatendiotela, baño ikusiditugu guk geroagoko izkribuak (*) 1485-garren urtekoak, oraindik Villa-mayor de Marquina deitzen diotenak. Arregatik, guk ustedegu ez zuela egun batean izen bat utzi bestea artzeko, baizik lenengo idukizuela bat bakarrik, erregeak jarriziona, gero Elgoibar esaten asizirala lengo izena utzigabe, piskaka Elgoibar-en izenak menderatuzuela bestea, ta azkenik aztu zala Villa-mayor de Marquina; guztiak dakiten bezela, gaur Elgoibar besterik ez zaio esaten.

II

Antshiñako albiste batzuek

Elgoibar ondekidatuzanean izanzituen inguruetako erriekin auziak geroago bere tokian esango ditugun arrengeetatik jaiok. Baita ere izanzituen beste batzuek bere mugapean zeuden errien basoetatik ikatza artzeko gertuan gelditzen ziran ola nagusiakin. Isastik esatendigu «Compendio historial de Guipúzcoa» izendatzen dan bere liburuan, 1625-an ain zuatzez jantziak zeudela mendi aiek, ezik, ugari arkitzen zirala basurde eta basauntzak, eta amaika urtetik amaika urtera ebakitzenzan egurrak 4.000 dukat balio izatenzuala.

1847-an, ikustenziran oraindik lau ola, bi galtzaidu-fabrika eta 14 irin-errota (**).

Villa Mayor de Marquina-ko biztanleak Elgoibarko oroian bildu ta gero Elgoibar jasozutenian, esan ditugun ola eta baso aberats oiek izanziran geiena erria osatzen lagunduzuten gauzak, eta orduezkeroztik, geroz eta geiago, joantziran aien ondorengoak, altsatzen eta apaintzen.

(*) «Ordenanza entre la Villa mayor de Marquina y los dueños de las ferrerías de su jurisdicción.»

(**) Madoz. «Diccionario geográfico».

LEGEAK.—Elgoibartarrak, antsiñako denboretan biziziran erriko oiturak agintzenzuten bezela, ta alkate ta beste agintariak aldatzenziran urtero San Migelen egunean.

Ez zuten lege idatziturik izan 1751-ko urteraño: orduan egintzizuten lenengo aldiz, eta Konsejo Real-ak baimendu zituen 1773-ko Garagarrillaren 12-an.

Zeuzkaten 55 agintza, eta beste gauzen artean esatenzuten, Aiuntamentuak eduki bear zituala alkate bat, bi errejidore, bat errikoa eta bestea erbarrengoa bi fiel eta denak urtero Illbeltzaren 1-an izendatu-kozirala.

PREBOSTEA.—Errege Enrike II-garrenak eginzuen erriko Preboste, Martinez eta Ganboako Juan; Elgoibartarrak etzuten au ondo ikusi, eta indarrez, erriak nai etzuala, geldituzan. Au 1404 aren aldera illzanean, Enrike III-garrenak eta Juan II-garrenak, Ganboako Juan Lopez izendatuzuten Preboste, eta erriak izendapena egiteko eskubidea berak edukinairik, esantzion erregeari, erria jasotzean eginzan agerkaia bere eskuetan utzitzenzuela agintari guztiak izendatzeko eskubidea; eta emanzeiola ere erriak naizuna Preboste egiteko baimena. Erregeak Lopezko Juanen baimenarekin erantzun zuen baietz, eta Balladoliden 1416-ko Garagarrillaren 12-an emandako gallaldian, esanzuen andik aurrera erriak jarritzela berak naizuen Preboste, beste agintariak jartzen zituen bezela. Juan II-garrenaren esker au, berak berriztatuzuen 1430-ko Lotazillaren 27-an.

Gallaldi au Elgoibarko zuentokian dago gordea (*).

GASHOENTZAT ETA BEARTSUENZAT ETSHEAK.—Gaso beartsuentzat eta bidastientzat, zeuden Elgoibarren lau gaso-etse.

Bat, uriaurrean, beartsu eta bidastientzat jarria.

Beste bat ere uriaurrean, Magdalenaren eleitsoaren ondoan jarria, San Lazaroren eria zeukatenak sendatzeko.

Beste bat «Arriaga» izendatua: au zan beartsuei laguntasuna emateko, ta bere zujejaundea zan Karkizanoko etsearen jabearena.

Gañera, Ibarako Juan, Kapitanak, Madrillen 1563-ko Orrillaren 28-an eginzuen azkenaiian aginduzuen eginzetatela Ubitarten beste gaso-etse bat, eta ortarako emanuan toki artan zeukan etsea, bere lur eta beste gañerako guztiekin.

(*) Gorosabel. «Diccionario geográfico».

Alzolako erritsoan zan beste bat, Lasturko Juanen zuzejaundekoa; osoro izkututuzan.

ERRIKO ETSHEAK.—Zituan bi; bat Iberoko Franzisko, etsegi-ileak, eleizako ezkildorrea egin zuenean zuzendatua. Etse ontan bilduziran 1737 garren urtean Probintziko Batzarreak, eta emanizkaten erriari eskerrak Gipuzkoaren ordezkarietzat izan zituen begiruneagatik.

OSTATUAK.—Denbora artan ere, Iberok zuzenkidatuzituen bi ostatu etse.

TITULOIA ETA ARMAK.—Noble eta Leiala da Elgoibarko erria. Bere armetan dauka goiko aldean, gaztelu bat kanpo gorrian; eta azpian, kanpo urdiñean iru biotz. Arma abek errege Fernando V-garrenak eta bere emazteak emanak dira.

ERREGEN IBILTEAK.—Esangodegu aurrerago nola erantzuten zituan Elgoibarrek, Probintziak guda denboran azaltzen zituen naiak; orduan bezelakose arretarekin zegoan beti prestu arren esaerak agintzen zutena egiteko.

Erregea edo erregeren aiden bat Probintzira etortzen zanean, onek nai izaten zituen diosaldu, berai egokizitzaie ongi etorri aundiarekin eta aurrez agintzen zutuan errietar., bideak antolatzeke eta gizontalde armatuak izendatutako lekuetara bialtzeko.

Antsiñean Probintzira sartzen ziran erregeak, Gaztelatik zetortzenean, Zegamako San Adriandik edo Gatzagatik.

1565-an etorrizan San Adriandik Frantziko mugara, Valoisko Isabel, Felipe II-garrenaren emaztea, ta Elgoibartarrak ateraziran Ordiziraño, su bakoitzetik gizon bat, beste errien gisan, orduan gudariak ibiltzen zituzten buru estalki ta alkabuzekin.

1615-ko Azaroan, errege Felipe III-garrena ta Austriako Ana, bere alaba, etorriziranean onera, Elgoibartarrak Sustaetako Alejandroren aginpidearen azpian, ateraziran Gatzagaraño.

1660-an Felipe IV-garrena etorrizanean, Probintziak erabakizuan Gatzagara aterazitezela bi gizontalde, ta aben artean joanziran Elgoibartarrak.

SUALDIAK.—Elgoibarren, beste gure errietan bezela, lenago etse geienak zurezkoak ziran, eta orregatik sua sarri izatentzan.

1560-ko Garagarrillaren 16-an, goizeko irurak inguruan, asi zan erri ontako goiko kalean sualdi bat, eta bosietarako oso erreziran 64 etse, aben artean, erriko etsea ta San Franziskoren Ordenakoen bapildearen

zati bat. Ama alaba batzuei emanzen sualdi arren kulpa, ta alkateak erri-
tik kanpora bialduzitan.

Urte artan Hernanin bilduziran Batzarretan, eskatuzion Elgoibarrek
Probintziari, lokabetuzezala arrek urtero eman bear izatentzuen su diru-
tik eta Probintziak baietz esanzion.

1617-ko Martsoaren 24-an, ostiral done egunean, aize aundia zebi-
llela, asizan beste sualdi bat gabeko amabietan eta guztiz erreziran lau
kaltetako 92 etse; 15 bakarrik geldituziran zuti, ta abek ere oso izate
tsarrean. Egun artako kalteak 50.000 dukat galdu erazi zituzten.

Uste izantzan, bat edo batek kalearen goiko etsien batean sua ondo
gorde gabe utziko zuela, ta sualdia andik sortuta, zabaldukozala erri
guztian, aize indartsuaren bitartez. Urte artan Zestuan bilduziran Pro-
bintziko Batzarreak, erabakizuten 12 urtean su diruaren pagutik loka-
betzea, ta orrela erriaren alde gelditzenanarekin etse berriak eginzi-
teztela.

Aurrerago ikusikodeguz bezela, 1794-an Frantzesak erre zuten be-
rriz Elgoibar.

URALDIAK.— 1553-ko Agorraren 14-an arri ta urak kalte asko
eginzituzten Elgoibarko sagartegi, soro ta erreka ondoetako lurretan.

1834-ko Garagarrillaren 28-an ere, izantzan negar asko egin azi zi-
tuan uraldi aundi bat, eta egun arren oroimengarri bezela, gordetzenda
Done Pedro egunaren bezperan ezkillak jotzeko oitura

BIDEAK.— Elgoibar, Eibar, Bergara ta Plazenziak, 1772 garren
urtean, eskatuzuren baimena Bergarako San Antoniotik asi ta aldeba-
tetik Eibartik igaroaz Bizkaiko mugaraño, eta bestetik Alzolarano iri-
tsitzenzan bide bat egiteko baimena. Iberoko Franziskok esanzuan, bi-
dea egiteko bearziran oroiak zenbaki ontan sartugabe, bere balioa
1.180.826 erreal izangozala. Erriak esanzuten, bakoitzak bere mugape-
tik igarotzenzan zatia egingo zutela, ta beartzan diruaren geigarria-
ri erantzuteko, ezarrikoizotela 8 marabedi pitsar bakoitzeko, errian sal-
tzentzan ardo ta beste erriari.

1775-ko Uztaillaren 26-an emanzen Gaztelako konsejuak, bidea
egiten asitzeko baimena ta urrengo urtetan jarraitu ta bukatuzuten, Ibe-
ro bidegilleak esanzuena baña bi aldiz geiago gastatu ta gero. Debak eta
Motrikok etzuten beren laguntasuna 1787 arte eman, eta orduan jarrai-
tuzan bidea erri abetaraño.

Bidea egitera zijoatzen erriak esanzuten ere, bakoitzak bere muga-
peko zatia antolatuko zuela, bear zanean, baña etzuten egiten, eta oso

gaizki jarrizalako, Plazentzian zegoan arma fabrikako nagusia aurrenkuraturatuzan Probintziari. Sei erriak bidea antolatzeke dirurik etzetelako, ipiñizuten Malzagan bidesari bat, eta orregatik ere eginzuten urte artan bertan; «Deba-ibaiaren anaitasuna,» denentzat zuzentzalle bat bakarrik zutela. Ala ere, bideak bear bezela ezinzituzten eduki, ta 1840-an Zestuan egintzan Batzarrean erabakizuten bezela, utzizituzten Probintziaren eskuetan. Erriak pagatukozituzten, biden bitartez egingdako zorrak, eta Probintziarentzat izango zan Malzagako katean biltzenzana. Erabaki onen esaerakin, eginzan Azkoitian 1840-ko Uztaillaren 30-an, Gipuzkoako Batzarreak 1845-garren urtean egingabetuzuen agerkai bat. Gero, 1850-an bidekin Probintziak eginzuan igualaren bitartez, igaro ziran berriz Probintziaren eskuetara; Probintziak eman gozitan 800 akzio 2.000 errealekuak, eundik bosteko geigarri bategin.

San Antoniotik Debaraño, bideak zeuzkan 5 legua eta 818 oñ; Maltzagatik Bizkaiko mugaraño, Eibartik igaroaz, 17.221 oñ, eta Sasiolatik Motrikora legua bat eta 2.510 oñ.

Probintziak eginzuen beste bide bat Elgoibartik Bizkaiko mugaraño 1856 eta urrengo urtean.

ELGOIBAR, PROBINTZIKO BATZARRETAN.— Probintziko Batzarreak etziran biltzen erri guztietan, baizik ortarako aztarnatuak zeudenetan bakarrik. Elgoibar zan abetako bat.

Probintziko su dirua pagatzeko, sartzenzan Elgoibar 56 suekin, eta bere ordezkariak jartzenziran Batzarretan Korrejidorearen eskubian, laugarren tokian.

AGERMENAK—Urtero izatenda Trinidad tsit Donearen igandean asi ta zortzi egun irautenduen bat.

1783 ko Jorraillaren 29 an erregeak emanzion baimenaren bitartez Elgoibarrek egitendu beste agermen bat illaren azkenengo larunbatean.

Bai ta ere 1799-ko Uztaillaren 10ean emantzioten baimenaren bitartez, egitendu beste bat ostegun guztietan.

BAÑU ETSHEA.—Altzolako erritsuan dauka bat tsit ospatsua. Bere ur beroai eskerrak, eramatenditu urtero sendatzera eri asko.

KILIMON.—Lenago errekatso au zan Deba ta Elgoibarren muga, baña orain dirala 20 urte gutsi gora bera, Probintziaren erabakiz aztarnatuziran beste batzuek, eta orduan Garagartza Elgoibarko mugapean sartu zan.

Iturri onek arruzka ematendu ura, aldietan gutsi, bestietan bate-re ez, eta batzuetan ain ugari, ezik, jarri izan zituala lanean ola bat, errota bat eta 11 igara. Denak gelditu bear izatendute Kilimonek ura emateari utzitzendionean eta au gertatzenda gutsiena uste danean, Iturri onezaz itzegitendute Euskaldun izkribatzalle askok; beste batzuen artean Ozaetako Hipolito, Aita Larramendi, Etsabe ta Gorosabelek.

MUJIKAKO GREGORIO.

(Jarraituko da.)



Elgoibar-ko albiste kondairatsuak



III

Eleizak

OLASO'KO DONE BARTOLOME'RENA.— Olaso'ko Done Bartolome'rena zan Elgoibarren lenengo altsazan eleiza. Noiz eginzan jakiteko ez daukagu albisterik, baña bai tsit antsinekoa dala esateko, Liza-sok irakurgaituzuen bezela, 1267-garren urtean errege Alonso Jakintsuak bere zuzejaundea Lopez Gamboako Juani emanziolako; egintza onek esatendigu eleiza egiña zegoala aurretik. Itz oetatik eta lantso onen asieran, erriaren jatorriaren gañean esandegunagatik, ikustenda, Markina Bekoa deitzendioten zelaian, Elgoibar baño lenago altsa zutela biztanleak eleiza.

Eleizaren ataldeko arri batean ipiñiak, ikusten dira Martin Santsez, ustedanez eleizaren aurreko aldea eginzuen etsegillearen izena, ta 1459-ko urtea. Atealdea, Godoen erara eginda dago, ta atearen erdian Ama Birjiñaren talluntza batekin, eta eleiza zar onen sarrera, alboetan Done Pedro, Done Pablo, Done Bartolome, Done Anton eta aingeru askoren irudiekin dotoretua arkitzenda.

Eleiza au tsit izate tsarrean arkitzenzalako, ta gañera erritik urruti ta erosotasun gutsiko tokian zegoalako, 1617-ko Ilbeltzaren 23-an erregeak egin zuen agerkai baten bitartez, Elgoibartarrak izanzuten lenenaren errentaren erdiarekin lagunduta, eleiza berri bat egiteko bai-

mena, ta bai ta ere errentaren beste erdia Jaungoikoari eskeintzen zioten begirunaren apaintasunean gastatzekoa. Olasoko etsearen nagusiak artzen zituzten orduan amarrenak, berak zeukatelako eleiza zarraren zuzejaundea, ta orregatik oek ere lagunduzuten eleiza berria altsazedin.

Asi ziran bada eleiza egiten, eta zimendu geienak jarri ta, ormak naikua altsatzen ziranean, emezortzi milla dukat baño geiago gastatuzituztutenean, ikusituten, ormak portitz etzeudelako, eleizaren egikizuna ezin jarraitu zala.

Orrela geldituzan eleiza berria urte batzuetan, eta bitartean zarra, geroz eta pitzatu aundiagoak toki guztietan agertuaz, zegoan zutik mirariz bezela. 1663-ko Jorraitaren 7-an, Araniz-Maldonadoko Fernando, Kalahorrako Arzedianoa Elgoibarrera Apezpikuaren ordezkustaldia egitera etorrita eleiza ikusizuanean, tellatua puskatuta zegoan eta euria egiten zuten egunetan ezin egon zitezkean apaizak koruan eta ez ere emakumeak illobien onduan, bustitsen ziralako. Ta goi alde ura ikusizue-nian, eleiza batentzat baña usotegi batentzat ohea zala esanaz, aginduzuan bi arotzek ikusizezatela zer lantegi egin bearziran eleizan eta eleizaiaren etsean, eta esanzezatela zenbat gastatu bearke zan tsukun samar biak jartzeko. Bai ta ere esanzuan Jaungoikoaren etsearen gaizki-egote ura amarrenak artzen zituzten zuzejaunen ajola gutsitik zetorrela, ta lenenak eleiza berrian gastatzeko aginduzuen ezkerero, zarra antolatze-ko amarrenak lagunduzekatela, ta bikarioa eginzedilla oen jabe eskomunio-ko obenaren azpian. Gañera apaiz guztiai debekatu zien apainketa geiegirekin eleiz-soñekoak eramatea, gastu geiegi ekartzen zuelako apainketa orrek eta apaizen soñean tsit gaizki ematen zuelako.

Agindu oek guztiak aurrera eramateko, Ezenarro, erriko Bikario ta letraduak izendatuzituan bi arotz, Anziodoko Antonio ta Kuruzelegiko Domingo. Oek eleiza ikusi ta gero esanzuten Abuztuaren 4-an, eleiza tsit gaizki zegoala, gurutzbesetik beera eltzeik (bóveda) ez zegoalako tellatu guztia agerizala, ta gurutzbeseko zurezko laberea oso zarra zegoala ta ezin bizi zitekeala elizaiaren etsean. Etsea ta eleiza antolatze-ko 2.200 dukat bearzirala esanzuten arotzak.

Kalahorrako Arzedianoak esanzuena egiteko, Elgoibar-ko Bikarioak bereganatuzituen amarrenak, eta nola orduan oek Ondarribiko erriarenak ziran, uri onek jarrizion auzia, baña bitartean bikarioak estalduzuen elizgoia zurezko eltziekin eta antolatuzituan arroinak olakin barrutik eta bustiñerrearekin kanpoko aldetik, beste gauzarik egiteko dirurik etzegoalako.

Baña auzia aurrera zijoan, eta nolabait bere bukaera billatzeko, nai izan zuten bi erriak ezdabaida laguntasunean antolatu, ta orretarako Azpeitian 1665-ko Jorraillaren 28-an eginzuten agerkai bat. Onen bitartez Ondarribiak emangozozkan Elgoibarrri 1.000 dukat amar urte-tan, urteko eun, eleiza berriaren gurutzbeea egiteko, 1664-ko Urriaren 6-an asi ta sei urte barru bukatzeko binaudearekin, eta binaude au betetzen ez pazuten, milla dukatak gastatukoziran eleiza zarra antolatzen. Agerkai au etzan bi erriak alkarganatzeko naikoa izan, eta auziak iraunzuen urte askoan.

1673-an nai izanzuten berriz Elgoibartarrak eleiza berriaren bukaera gerturatu, ta eskatuzioten Ondarribiko erriari lagunduzezala biltzenzitan amarrenaren zati batekin. Lukas Longa-ri emanzioten irudia egiteko lana ta artuzituen beragatik 20 zillarrezko ezkutu. Asi zan urte artan bertan eleiza egiten eta lanerako aurreratu zizkioten 1.500 dukat eta emanziotien beretzat bost milla erreal.

1694-garren urtean, erregearen baimenarekin geituzan lau marabiri pitsar ardoaren balioa, ateratzenanarekin eleizako lanak laguntzeko.

Longa 1714-an illzanean, antolatuzituzten kontuak bere alargun eta ondorengoakin, eta ikusizan 102.940 errealetaraño iritsitzenzala ordu-raño egindako lanen balioa. Esatendute Longa Mendaron jaiozala ta Orduñako arkaitza irikizuela; egiazki dakiguna da berak eginzituala Alzolan, batzuek arruztaien gañean eta besteak arroin gañean Debaibaiaren ertzean dauden etseak.

Eleiza zarra tsit gaizki zegoala, ta berria egiten ariziran bitartean, erriko biztanleak elizkizun geienetara Done Franziskoren Bapildera joantenziran; orregatik Olasoko Done Bartolome zegoan beti utsik eta gelditzenziran Bapildean eleizako apaizak izan bear zituzten irabazpenak. Arrazoiarekin esatenzuen Lepe-ko Pedro, Apespiku jaunak, bataioko arriaren utsunea bakarrik ikustenzala Done Franziskoren Capildean.

Eleiza bukatuzan, eta 1716-ko Lotazillaren 30-an Etsezabal-eko Antonio, Eibar'ko Done Andres'ko apaizak bedeinkatuzuen eta gero esanzuen meza nagusi bat Olasoko eleiza zarreko apaizen laguntasunarekin.

Orduetzkeroztik, eun urtetan erritik kanpora amarrenak irtetzen ikusi ta gero, idukizuten Elgoibartarrak beren eleiza. Berari jarrizioten San Bartolomé el Real de Calegoen-go izena. Orduan eramanziran eleiza zarretik berrira, Vera Cruz, Rosario ta Santisimo-aren Kofradiak eta elizkizun guztiak; eta asiera batean bere aurrekoen illobiak

eleiza berrira eraman nai ez zituztenak izanagatik errian, azkenean danak aldatuzituzten Idiakez'ko Antoniok eta Peñafloidako Kondeak ori bera egiten zutela ikustean.

Gure lege zarrak agintzenzuten bezela, 1718'garren urtean Elgoibarren bilduzanean Probintziko batzarrea, eleiza berrira joanzen meza aditzera, ta erriari tsalo bat eskiñizion, altsazuen bezelako eleiza bat egiteko ainbeste urtean saiatuzalako.

Eleizaren laberan ikustenda oroimengarri bezela, irakurgai au:

Hoec est domus Domini firmiter bene fundata. Est supra firmam petram quam Philipus III Hispaniarum Rex praecepit aedificari die 23 Januarii anno Oni 1617.

Eleiza berria bukatuagatik, etzan zarra bota; bertan igandetan eta beste jai guztietan meza esatentzan; baño urte batzuek igaroziranean, ain egoera tsarreen zegoan eze, itsitzeko baimena emanzion erregeak Apezpikuari 1776-ko Otsaillaren 15-an. Urte artan bertan botazan eleiza, ta bere tokian eginzan illerria.

Esandegu Longa etsegillea, eleiza egiten arizan bitartean illzala. Illzanean, Larraza'ko Tomas'ek artuzuen arren lana, ta au 1738-garren urtean ilzanean, Ibero'ko Ignazio ta bere seme Franzisko, Azpeitian bizi ziranak, beartuziran 1748-ko Epaillaren 14-an egindako agerkai baten bitartez, ezkildorrea jarraitzera ta bukatuzuten 1757-an 200.000 erreale gastatuaz.

Ezkildorreaz gañera, Franziskok eginzituen bi elizatari, eleizaren alboetan.

ZUZEJAUNDEA.—Olasoko Done Bartolome-ren eleiza, 1312-garren urtean izkutatuzan Tenplarioen ordenakoa, ta erregearen zuzejaundekoa zan. 1267-an Alonso Jakintsuak emanzion, zati onen asieran esandegun bezela, eleizaren zuzejaundea, Olasoko jauregiko Juan Lopez de Ganboari, ta Alonsori jarraituzioten erregeak, Juan Lopez-en ondorengoai emanzioten zuzejaunde ori, ta egon zan senikera artan bertan Abendañoko Isabel Anjela ondorengorik gabe illzan arte, ta orduan itzuli zan berriz erregearen eskuetara.

Dakigun bezela, 1638-an etorriziran Españira Franzesak, eta Kondeko Lenena (Prinzipea) agintari zutela, esituzuten Ondarribiko uria. Arerioaren artilleriak kalte aundiak eginzitian etsietan, eta bai ta ere eleizan, ez ormetan eginzitian gaitzagatik bakarrik, baizik bai ta ere

soro ta atzetako arnariak (*) alperrik galduta lenenak artzeko biderik utzi etziolako. Nolabait kalte oek ordaintzeko, 1639-ko Illbeltzaren 6-an errege Felipe IV garrenak eman zion uri ontako eleizari, 30 urterako, Elgoibarko Done Bartolome'ren zuzejaundea. Buitragoko Franzisko, Ondarribiko eleizako Mayordomoa Elgoibar-a zuzejaunde onen jabetasuna artzera joanzanean, Eskalanteko Kondesak jakinzuan, eta Ondarribiko uriak baña lerden aundiagoa zeukala usteta, jarrizion auzia, ta orduan Elgoibarko amarrenak urtean gutsi gora bera ematen zituzten 1.200 errealetatik geienak gastati aziziozkan.

Esandegun 30 urteko denbora bukatu baño Ienago, 1660-ko Agorraren 26-an, Franziarekin egingenduen bakearen bukaeran, errege Felipe IV-garrena Ondarribian izanzalako, ta bere alaba Austriako Maria Teresaren ezkontza Franziaiko Luis XIV-garrenarekin eleiza artan bertan eginzalako, luzatuzion, beste 50 urterako Ondarribiri, Elgoibarko eleizako zuzejaundearen jabetasuna, ta gero, 1716-an Felipe V-garrenak eman ziozkan ogei urte geiago, ta geroago beste 30 urte, denen artean 1769-an bete bearziran 130 urteak egiñ arte.

Erregeak, 1743-ko Otsaillaren 10-an eta Urriaren 15-an, eta 1747-ko Epaillaren 23-an eman zituan agerkaietan, esatenzan, zuzejaundearen jabetasuna Ondarribiko erriarena izatez utzitzenzuanean, Aranburuko Jose Basilio, Teniente Jeneralarentzat izan zedilla, baña 1755-ko Epaillaren 13-an egingetuzan Aranburu-ren alde egindako eskerra, ta geituzitzaion Ondarribiri beste 30 urterako, au da 1799-garren urteraño.

1799-ko Illbeltzaren 14-an, IV-garrengo Karlos erregeak, luzatuzion berriz zuzejaundearen eskerra Ondarribiari, baña noiz arte esan gabe, erregek berak naizuen arte.

Illzan errege au, ta baita ere Fernando VII-garrena ta oraindik zegoan Elgoibarko eleizaren zuzejaundea Ondarribiaren eskuetan. Baña 1842'garren urtean, illzan Done Bartolome'ko organista ta berriaren izendatzea zala bitartez, jaioziran ezdabaidak, eta 1842-ko Azaroaren 20-an zuzenkidatuzion Elgoibarrek erregeiñari agerkai bat, Karlos IV-garrenak luzatuziola Ondarribiari noiz arte esan gabe, Elgoibar-ko eleizarren zuzejaundea ta ura illezkero esker arrek bukatua izan bear zuala

(*) Atze: Arbol. arnari: Fruto. Itz oek ezdira gaur euskaldunen idazpenean ikusten. Baña antshiña ipintzenziran, eta euskaldun utsak diralako jartzen ditugu emen, itz zarrak galdu bear ezdirala uste degulako. Azkue jaunaren gaiñ gañeko iztegian arkitzendira.

esanaz. Asi zan bi errien artean auzia ta Bergaran emanzuten erabakia 1845-ko Agorraren 25-an Elgoibarren alde ta erri ark eskatzen zuen erara. Etzuen Ondarribiak ontzat artu, baña Burgos-en berriz auzia ikusizanean ere 1847-ko Uztaillaren 1-an, Elgoibartarren alde izantzan erabakia, ta orduan bukatuzan Ondarribiko eleizak berreun ta geiago urtean edukizuen zuzajaundea. Urte oietan, Ondarribiak zeukan Elgoibarko eleizaren zuzajaundeaz gañera, bere eleizarena, ta orregatik izendatzen zituan zortzi apaizak, eleizaia ta organista, ta bereganatzen zituen Done Bartolomé, ta Alzolako ta Mendaroko eleizen arnari ta amarrenak. Kalahorrako Apezpikuak izendatzen zion Bikarioa.

Elgoibarko amarrenak eman zizkioten Ondarribiari 1665-ko urtean, 600 dukat, bere egiteko guztiak bete ta gero.

Geienetan amarrenakin gelditzen zan berakgatik geiago eskeintzen zuten Elgoibar-ko biztanlea. 1717-ko urtean eta jarraituzirantetan, eman zitutuzten 7.000 erreal urteko, ta Mendaro ta Alzolako egitekoak egiten zitutuzten apaizari, organista ta elizaiari bere zatia eman eta gero, geldituziran Ondarribiaren alde 3.300 erreal.

1824-garren urtean, amarrenak izanziran oek:

Garia	302 anega.
Artoa	327 »
Babak	3 »
Gaztaiñak	28 »
Sagarra	12 saski.
Liñua	24 libra.

Beren balioa izantzan 21.576 erreal, eta oietatik izanziran 16.000 Ondarribiarentzat (*).

BESTE ELEIZA BATZUEK.—Olasoko Done Bartolome'ren eleizaz gañera, Elgoibarrek baditu beste bi, arren mendean egon diranak; Mendaron, Azpilgoetako Done Maria de la Asunzion deitzendiotena; ta Alzolan, Done Juan Bautistaren izenarekin ezagutzendana. Donkitu zaizkiogun bi itz bakoitzari.

AZPILGOETAKO DONA MARIA.—Mendaron jarria; bere kon-

(*) Lenen eta amarren gañean esandegun geiena, Ondarribiko zuzeleku tshit aberatsean ikusiditugun idazpen eta agerkaletatik artudegu.

tura zeukan Motriko ta Elgoibar aldeko mugape guztia, ta egitenzituen bertako elizkizunak San Bartolomeren eleizako apaiz batek.

Trinidadeko etsetaldean ere bazan izen ortako eleizatso bat.

DONE JUAN BAUTISTA.—Elgoibarko eleizaren eta Alzolako erri-soaren bitartean bide asko ta tsarra zegoalako, illziran Alzolan, esatendutenez, biztanle batzuek eriotzako orduan Eleizak bere semeentzat daukan laguntasuna artugabe, ta ori galerazitzeko, Alzolako Fray Domingok, bere jakintasun aundi ta bertute ugariagatik gero Apezpiku izanzanak, asizuen eleiza baten egikera (*). 1604-garren urtean bukatuanean, nai zuten Sakramentu Deuna jarri ta bataiatu ahal izan. Esanzuen Elgoibarrek ezetz, eta eskatuzión laguntasuna Probintziari; baña ala ere Aitasantuaren Nunzioaren eta Kalahorrako Probisorearen baimenarekin, jarrizuten Alzolatarrak Sakramentu Deuna beren eleizan. Orduan, Gorosabelek esatenduana sinistu bearbadegu (**), Elgoibarko alkate, apaiz eta erriko biztanle geinenak, juanziran Alzolar, ta Sakramentuak eleizatik arturik, eramanzituzten Elgoibarko San Bartolomera.

Egintza ontatik jaiozan, Alzolatarrak eskatuzutelako, Balladolidko Tsanzilleriak asizuen auzibidea. Auzibide au jarraitzera etorri zan Tsanzillariaren ordezkari bezela, Garnikako Frankos, eta onek eun Elgoibartar baño geiago bialduzitan erritik urruti urte bete edo bi urterako, multa ugari pagatu azi ta gero.

Bere aldetik, Gipuzkoako Korrejidoreak ere, Elgoibarko apaizak eskatuzutelako, jarrizuen auzibidea Alzolatarren kontra, ta Elgoibarkoak bezela kondenatuak izantziran. Bi auzibideak eramantziran Tsanzilleri-ko «sala de alcaldes del crimen» deitzenzioten tokira, ta an bukatuziran bi aldekoai multak ezarrita, Elgoibarren gordetzendan 1612-ko Gara-gaillaren 30-an, Balladolid-en egindako agerkai batek esatenduen bezela. Gipuzkoako Probintziak agerkai au ezagutazuanean jarrizan Elgoibarren alde, baña ala ere Alzolako ermita eleiz biurtuzuten.

ELEIZTSHOAK.— Errian bertan ziran bi; Salbatzailearena ta Magdalenarena, ta erritik kanpoan baña Elgoibarko mugapean, beste bost; Deun Pedro, Deun Antolin, Done Lorenzo, Done Migel eta Deun Roke. Garagartzako etsetaldenba ziran beste iru eleizatso, Konzepzioko Amari, Dona Ana ta Paduako Antoniori donkituak.

Alzola-ko bañu-etsean dago otoiztegi bat, Juan Ebanjelari Donea-

(*) Registro de Juntas de Mondragon.—1604-ko Azaroa.

(**) Diccionario geográfico.

ren izena daramana. Udan egunero esaten dira mezak eta errosarioa, otoiztegi artan.

BAPILDEAK. —Ziran bi: Done Franzisko'ri donkitua, ta Franzisko-tarren ordenakoen mendean zegoana, Insausti-ko Nikolas'ek, Santsez eta Karkizano'ko Domingo'k eta beste biztanle batzuek 1516-ko Aza-roa'ren 3- an Perez Arriola'ko Martin, Elgoibar'ko eskribauaren aurrean egindako agerkai baten bitartez sortua ta joan dan eunkiaren lenbiziko ogeitamar urteak bukatu arte irikia egon zana. Gaur itsia dago, baña, Done Bartolome'ren eleiza kondairatzean esandegun bezela, naitasun asko izanrioten Elgoibartarrak. Naitasun arren agerkai bezela ikusten-dira oraindik bakoitzak egindako otoiztegiak, eta bai ta ere jauregi batzuetako armak ormetan ipiñiak.

Eleiza ontako otoiztegi batean, arkitzenda gudatzalle baten erantza, belauniko, otoizten bezela, ezpata gerrian duela, ta beste gudetako tresnak bere inguruan lurrean banatuta dituala. Azpian esatendu: «Re-trato del Capitán Bartolomé de Alzola, hijo del Capitán Asencio de »Alzola y doña Catalina de Ibarra, fundadores de esta capilla.»

Done Ana'ri donkitutako otoiztegi, esatendu beste ezku baten azpian: «Armas de la casa de Andonaegui, año 1763».

Badaude ere beste arma batzuek ormetan banatuak. Alzolako azpian irakurtzenda:

«Nuestro muy santo P. Gregorio XIII, año de 1583, concedió á »esta capilla de la Cruz que con cada misa de Requiem que los reli- »giosos moradores de este Convento digan en ella para algún difunto, »se saque su ánima de purgatorio».

Bigarren bapildea, Dona Klararen ordenako monjena da, ta 1533'ko urtean, Gonzalez eta Jausoro'ko Pedro'k eta bere emazte Ramos Zazua'ko Maria'k egiteko agindua. Onak oraindik badirau.

Garagarzan ere bada, 1561'ko Urriaren 11-n egindako «monjas ca-nónigas» deitzendioten ordenakoen bapilde bat. Lenengo monjak 1565'ko Epaillaren 18-an sartuziran.

MUJIKAKO GREGORIO.

(Jarraituko da.)



Elgoibar-ko albiste kondairatsuak

IV

Auziak

Alkarren gertu dauden erriak, izatendituzte ezdabaidak ugari. Ori gertatu zan Elgoibar ondekidatuzanean. Batzuetan olagizonakin, gaur Debarekin, bigar Alzolarekin, geienetan bazituen egazkiak hat edo besterekin. Ikusidezagun nola jαιοak eta nola bukatuak izan ziran auzi ayek, eta eskatudezagun Jaungoikoak amaitu ditzala betiko, Euskal-erriari kalte beste guazarik egiten ez dioten aserre ayek.

OLANAGUSIAKIN AUZIAK.— Amabostgarren eunkiaren erdi aldera Karkizano, Alzola, Azteniola, Gabiola ta Lasalde izendatzenziran oletako nagusiak, nai izan zuten ordutik aurrera bearzuten bakoitzean erriko basoetatik egurra artu, Gaztelako erregearen baimena zeukatela esanaz, baña erriak ukatuzien berea ta emendik jaioziran, 1459-ko Orrillaren 16'an egin eta Enrike IV-garrenak 1462-ko Abuztuaren 8'an berrizatuzuen adiskidetasunezko agerkai baten bitartez bukatuziran aserreak. Agerkai onetan esatenzan erriko basoak esitu ta gordekozira-la Karkizano, Azteniola, Alzola, Gabiola ta Lasaldeko oletan bakarrik burnia iantzeko, ta bertan zegoen ikatza zenbatukozala olanagusiak ordañduzezaten karga bakoitza amabost blancas viejas deitzenzitzaioten diruarekin.

1467-ko Agorraren 14-an eginzuten izkribu berri bat, 1474-ko Garagarrillaren 4-an, erregearen baimena izanzuena. Bertan esatenzan

erriko baso guztiak esitzeko ta an izatentzan egurrarekin iru zati egin-da, bat izanzedilla olentzat, sukaldetarako bearzana kendu ta gero, ta beste bi zatiak gelditukozirala errikoechearen eskuetan. Olanagusiai saldu biarzioten ikatzaren balioa izangozan 11 marabiri berri ta blanca erdi hat. Bai ta ere argituzan diruaren balioa igotzenbazan ala jeisten-bazan, ikatzarena antolatukozala bear zan eran.

Gauzak aiñ argi jarri arren, Iaister berriz aserreak eta baiezak etorriziran, eta 1547-garren urteko asieran, beste auzi batean sartuziran.

Bukaera izantzan olanagusien alde.

1793-ko urtean, Elgoibarrek asi zituen lanak 1467'garren urtean egindako agerkaia egingabetzeko, baña orduko tsandan ere olagizonen alde izanzan erabakia. Baña esanzan, basoetako ikatzari prezioa jarri ta gero, emateko olai irugarren zatia, jartzenzitaion prezioa baña erreal erdi bat merkeago.

Bai ta ere Elgoibar-ek izanzituen Mendaroko olajaunekin banaiak, erriko ta araneke alkateak zirala bitartez. Zan orduan araneke alkate Aurteñola'ko Garzia Ibañez ta auzi aien azkena arkitzeko, bilduziran Elgoibarko biztanleen Batzarre Nagusia ta Aurteñola, Gabiola, Apanis, Lalsalde ta Alzolako olanagusiak, eta San Bartolomeko eleizaren ondoan Sarasua'ko Juan Perez ta Unzeta'ko Martin Sanchez'en aurrean, eginzuten agerkai bat; agerkai onek azaltzen zituen Elgoibarko ta araneke alkate jaunen eskubideak.

DEBA-REKIN AUZIAK.—Elgoibar, Deba ta Motrikuren artean, dago Mendaro, ta emen iru erriak zeukaten len zer ikusia; au izanda ezdabaida askoren jaiotza, orain ikusikodegun bezela.

Debako inugapean, Aranogibel deitzenzioten tokian, gordetzentziran gabetan ardi ta abereak, eta leku ori zala bitartez jaioziran aserreak Deba ta Elgoibarren artean.

Bai ta ere, Elgoibarren zan jauregi Olasoko jaun Ganboa'ko Martin Ruiz'ek izan zituen egazkiak Debako erriarekin, Arregian zegoan arrantzta toki bategatik, eta Santa Maria Garagarzakoaren eleizagatik.

Gauza bategatik edo besteagatik egunero zebiltzan alkarrekin burruketan, eta ainbeste geituziran gauza oek ezik, Probintziako Anaitasunak artu biar izan zuen bere eskuetan, bakea ekartzeko lana. Ortarako bilduzan Usarragan, 1462-ko Agorraren 17-an; bilgumak izendatuzituen Zarauz'ko Lope Martinez, Ayerdi'ko Juan Martinez ta Lerchundi'ko MartinIbañez, baiez guztiak erabakitzeko. Joan ziran jaun oek

Elgoibartarrak eta Debatarrak adiskidetasun gabe zebiltzan tokietara, ta bi aldetakoai enzun eta gero, artuzituzten neurri oek:

I-goa. Kenduzitzatela Elgoibarrek eta Debak Aranogibelen zeuzkaten sagartegi, etse, zuaitz eta landara guztiak, eta orduetzkerotzik aurrera ezin jarriko zutela orrelako gauzarik, bi errien baimenik gabe.

II-na. Erabaki oietan Elgoibarri zegokionak, ezin kalte egingo ziola Aranogibelen Debako erriari ta bere alkateari zegokiotenai.

III-na. Probintziko bilguma nagusiak erabakikozeula, Ayerdi ta Lertsundiri enzun eta gero, abereak gabean non gordeko ziran.

IV-na. Egin zedilla Garagarzako eleizaren gañean Ganboa'ko Ruiz Perez-en egunetan emantako agerkaiak aguintzen zuena.

V-na. Arregiko arrantzatokia izanzedilla Martinez Ruizentzat eta bere ondorengoentzat.

VI-na. Alkarri barkatzeko gaizki esan eta egindako guztiak, eta aterazitzetela aserre aiekगतिक प्रेसोन्डेगिन् येउदेन् गुस्तिक्.

Ayerdi'ko Martinez ta Lertsundi'ko Martin Ibañez-ek, esanzuten urte artan bertan, Zestuan Probintziak eginzuen batzarrean, Debak eta Elgoibarrek, bi erriak, berdin zeukatela Aranogibel'ko urak eta belarrak eramateko eskubidea, ta bai ta ere gabaz abereak gordetzeko; baña etsola, etse tsabola esi orma ta beste arrelako itsirik egin gabe.

Beste auzi bat ere izanzuten bi erri oek. Kilimon deitzenzaion ibaitso baten ur garbiak, jeistenziran Deba ta Elgoibarren artetik, jolasean bezela, batzuetan Debako mugapean sartuaz, bestietan Elgoibarko lurrrak bustiaz. Ibaitsa onen sartu-atera oek ere emanzioten izaera banaita batzuei. Baña ezdabaida abek bukatuziran 1709-ko Uztailaren 24-an Garate ta Aizpuru'ko Tomas'en aurrean eginzan, erri bakoitzaren eskubideak garbi esatenzitzen agerkai batekin.

ALZOLA-REKIN AUZIA. —Antsina erri guztiakin gertatzen bezela, Elgoibarko erria zegoan murrus esitua, ta esitik barrura zeuzkan echeaz gañera, zeuzkan beste batzuek kanpotik. Murrueatik kanpora zeudenai etzioten barrukoak arategirik, arrandegirik eta ardoteirik idukitzeko baimenik ematen, eta ezin zezatekean ere alkate izan, eta ez ta ere erriko gauzetan zerbait agindu bear zan tokietara, sarrerarik. Murruean inguruetan bizi ziranak, eskatuzituzten barrukoan eskubideak; ukatuzizkioten oek eta jaioziran beti bezela, erregearen agerkai batekin bukatuziran ezdabaidak. Agerkai onek emanzituen erabaki garbiak bakoitzaren eskubideak zabaltzeko; esatenzuen, alkate ta beste agintariak izendatzeko, berdiñak zirala esiaren barruko ta kanpokoak; alkate ta

beste agintari ai izateko iduki bear zala errian etsea zabalduta gutsienaz zortzi egunez aurretik: agintariak eginbearzituzeala billaldiak, eta auzi guztiak erabaki murru barruan; ardotegirik, arrandegirik eta arategirik ezin jarriko zala esitik kanpo aldera ta bai barruan bakarrik; arraia salduzitekeala erriko edozein tokitan. berdin kanpoan nola barruan, errian aforatu ta gero. Granada'ko Real de la Vega'n 1491'ko Garagarrillaren 14'an emanzen agerkaiak agertzenzuaneez, aforatu sabeko arraia etzan saltzen utziko esitik kanpora legua erdi bat baño gertuago, bario bai legua erdi batetik arontzago.

Geroago, au ere debekatuzuen alkateak, eta aforatu gabe arriirik inun erosi ezin zalako, berriz asiziran aserreak: bukatuziran Balladoliden 1495'ko Uztailaren 28'an emanzen agerkaiarekin.

Orduan orrela bukatuzan gauza au, baña 1605 garren urtean, Alzolarrak eskatuzuten baimena beren atietatik igarotzenzan arraia eros-teko; Elgoibartarrak ukatuzioten eta Motrikuarrak, Hernanin 1605'an eginzan batzarrean, eskatuzuten ez Motrikuko saltzelleari galerazteko Alzolan arraia saltzen, baña batzarreak erantzunzien eginzezatela gauza orren gañean lenagotik esanda zegoana.

MOTRIKU-REKIN AUZIA.— Elgoibarko erriak, eta baita ere Ganboa'ko Martin Ruiz'ek, izanzituzten egazkiak Motriku'rekin, Azpilgoetako mugapea zala ta etzala; bukatuziran 1446'ko Otsailaren 4-an Tolosan eginzan Bilguma nagusiak, Azpilgoeta Motriku'ko mugapekoa zala esanzuanean.

Motrikuk eskatuzuen, andik urte batzuetara, Elgoibarrek esanzezala Motrikurena zala Plaza de Mendaro deitzenzioten erri-soa, ta berriro 1724'an eginzuen eskaera ori bera. Diputazioak, 1731'ko Urriaren 20'an agerkai baten bitartez, agertuzituen erri bakoitzaren eskubideak.

MUJIKAKO GREGORIO.

(Jarraituko da.)



Elgoibar-ko albiste kondairatsuak

V

Gudak

Guztiak dakiten bezela, Gipuzkoak etzuen bake denboran soldadurik ematen, 1876'garren urtean, Lege Zarrak kendu zizkiguten arte. Gudaren bat zanean, Probintzia biltzenan batzarrean, eta esatenzuen erri bakoitzat zer gudari bialdtu bear zituen, eta arraskoa aundia zanean, agintzenzuen biztanle guztiak, aitarren- seme, armatu zitezela.

Antsiñeko denboretan sarri azaltzenziran gudak, eta Guda aien eka rrera tsarrak lenengo sartzenziran tokia Gipuzkoa izatentzan askotan, Franziako mugan zegoalako; orregatik Gipuzkoarrak egon bearzuten beti trebe gudetako gauzetan, eta ala izanzedin, gure Lege Zarrak agintzenzuten erri guztietan urtean beñ erragiña eginzedilla, bear zanean gazteak beren lurra gordotzitzen jakinzezaten.

Orduko oitura done aiek jarraituaz, Elgoibarrek edukitzenzitan errikoetsean bere arma, bandera, tanbor eta gudako gauzak; eta urtero bere semeak biltzenziran erragiña egiteko. Gudaren bat sortzenzanean, osatzenzuten gudari-talde bat Probintziak agintzenzuen ainbat gizonekin, eta erriko alkatea buru zutela, joatenziran Batzarreak izendatutako agintariak agintzenzuen tokira.

Era orretan joan ziran Franziako mugara 1521'an Iñigo ta Karkizano'ko Kapitanaren aginpidearen azpian; eta Ondarribiko uria esitzeko Franzesak Bidaso-ibaia igarozutenian, Elgoibartarrak sartuziran Ondarribian, eta an egonziran Bera'ko Diego'k uriko agintaritzak izendatzen

zizkieten tokiak gordotzitzen, Urriaren 18'an Ondarribia menderatuzan artean.

1557-ko urtean, Franzesakin guda baten gertutasunaren albistea zabaltzen asizan, eta Batzarreak, Zumayan bilduta, Franziko mugarako 2.000 gizon aterazitezela erabakizuen; eta aginduzuen, Elgoibarko erriak eraztu bearzuen gizontaldearen agintari Lasalde'ko Martin, eta onen utsunean Altzola'ko Andres izanzedilla.

1625-ko Azaroan bilduzan berriz Batzarrea Tolosan, eta erabakizuen zortzi egunetik zortzi egunera Franzia'ko mugan tsandaturkoziran sei-reun gizoneko bost gizontalde egiteko. Elgoibarrek bialduzituen 60 gudariak, lenengo gizontaldean jarriziran, eta beste guztiak bezela, egon-ziran Irunen, beren tsandako zortzi egunetan. 1719-an ere, bialduzituen eun gizon beren agintari ta guzti Franzia'ko mugara. Era oetan bezelase, beti Elgoibartarrak emanzioten Probintziari laguntasuna bear guzietan.

Gudetatik sortutako kalte aundienak, 1794-garren urtean izanzituen Elgoibarrek. Franzesak, Abuztuaren asieran, España'ra Irun aldetik sartu ziranean, erri onetan eta Ernanin Kolomerako Kondeak agintzen-zituan gizonak menderatuta, sartuziran Probintziaren barru aldera, igarotzean billatzenzuten guztia erre ta arrapatuaz, eta Abustuaren 29-an iritsiziran Elgoibarra, eta an beste errietan bezela etseak errezituzten, ostuzituzten eleizak eta beste orrelako gaiztakeri asko eginzituzten.

Kalte geiago izanzituenen artean, arkitzenan Larrunbideko Pedro Martin; bere etsea arpillatuzuten lenengo ta errezutun gero, Arriola ta Muguruza'ko Jose Ignazio ta Zabala'ko Franzisko Ignazio-ren laguntasunarekin gorde ta gero erregearen aginduz Done Ildefonsora eramana-zizitualako Franzesak Loiolako Done Ignaziotik arrapatu ta beren errira bialtzeko prestatzen ariziran zillar eta urrezko eleiz gauza guztiak. Lenengo ergaiak igaroziranean, Gipuzkoarrak arreginduziran eta indar banatuak bilduta menderatuzituzten Franzesak, eta aurrera arturik eramanzituzten Tolosaraño.

Franzesak biurtuziran berriz Gipuzkoako goi aldietara ta Azaroaren 28-an, artuzuten Bergarako erria; baña gutsi iraunziren garaitzak, Mendizabal'ko Gabrieleak, Gipuzkoako batalloiekin eta Arabar eta Bizkaitarren laguntasunarekin, denen artean 5.000 gizon biltzen zirala gutsi gora bera Lotazillaren 2-an kenduzuelako Bergara Franzesaren mendetik.

Eginkizun oetan kalte asko izatenzituen Elgoibarrek, ez bere semeak gudadzenzutelako bakarrik, baizik bai ta ere beti erri aietan zebiltzan gudariak ostatua emateko beartuak arkitzenziralako.

Alde artatik Franzesen aurreratzea galerazitzeko, bilduziran Iziar eta Alzolako mendi gañetan, Deba-ibaiaren eskubiko ertzean, bost mila Bizkaitar; eta Alzolatik Naparroa, ta Araba bitartean jarriziran Gipuzkorrrak, eta inguruko beste toki batzuetan Arabarrak.

Lotazillaren 19-an Franzesak menderatuak izanziran Sasiolan, eta Arruaraño atzeratubearra izanzuten.

1795-ko Ilbeltzaren 7, 13 ta 27-an, arerioak artu nai izanzuen Azkarateko mendia, baña gure gudari kalipudunak galerazizioten.

Otsaillaren 27-an eginzuen etsaiak alegiña Sasiolatik igarotzeko, baña gure gudatzalle bulardetsuai eskerrak etziran igaro.

Jorraillaren 16-an etorriziran berriro Azkarate artzeko asmoan; batzuek Iziartik iritsiziran ia Alzolako erritsoraño baña ezin aurrera igaro izanzuten. Orrillaren 9-an, berrituzan esetsaldia ta larri ibilliziran Sasiola ta Mendaroko zubiko gordoxtziak, baña azkenean gure artilleriak itzuli azi zuen arerioa.

Orrillaren 11-n bereganatuzuen etsaiak Lasturko mendia, ta ainbeste zirikatuziran alkar Franzesak eta Españolak, ezik, esan liteke suak ill guztian iraunzuela.

Orrillaten 21-ean artu nai izanzuten arerioak Muskiritsuko mendia, baña guretarraren kalipunk Azkoitiraño atzeratu azizien.

Garagarrillaren 4-ean joanziran gureak Franzesaren kontra, baña berri atzera itzuli bear izangenduen.

Garagarrillaren 28-an etorriziran Franzesak gure kontra ta bi aldiz atzeratuak izantziran Sasiolan, eta beste bi aldiz Debako itsasatean, baña azkenik igarozuten ibaia, ia Bergara ta Elgoibar artuzituzten.

Uztaillaren 11-n menderatuzituzten Gorostola ta Dona Kruz. Gero, Elgoibarren bilduta, erasozioten Maltzagari ta joan ziran Ermu aldera.

Itz labur oetan ikusidegun bezela, izantziran beti gudatzalle bikañak Elgoibartarrak, eta beren lur maiteagatik odola itzultzeko zeuden beti prestu.

Aerioaren aurreratzea galerazitzenzuten murruak izan ziran Elgoibartar kalipunak, lanean jartzendituzte gaur orduan gudetan jartzenituzten indarrak eta bizi dira, doatsuak, beren erri baketsu ta maitagarrian.

¡Ala jarraitudezatela beti!

MUJIKAKO GREGORIO.

(Jarraituko da.)



Elgoibar-ko albiste kondairatsuak



VI

Purubeak

OLASO'KO PURUBEA.— Guztiak daukagu Oñaz eta Ganboa'ren aldekoak gure erriak odolduta zeuzkaten egun aietako albisteren bat. Burruka aien aitamenik ez degu egingo, baña Elgoibar'ko mugapean azaltzendala Olaso'ko purube ta jauregia, Ganboa'tarren aidenagusien buru izantzana, esan bear degu.

Bere ezkutuan zeuzkan. Gerra'ko Juan Karlos gauza abetan tsit asko dakienak esatendigunez (*), zillarrezko kanpoan iru panela.

Purube ontako jaunak zinegitenzituzten Castilla'ko Lenenak: Pro-bintzi batzuetako erri, jauregi ta purubetako nagusiak eta eleiza ta bapilde askotako zuzejaunak zirain; batzuek zeukaten Kondestable'aren ondoan esertokia Naporro'ko Kortetan eta ematenzuten iritzia erresuma artako gauzetan. Errenta aundiak artzenzituzten Gipuzkoa'n eta kanpoan; Olaso'ko eleizan zeukaten illobia toki naizanagoan, esertokia etsandrearentzat eta etsejaunarentzat aulkia Epistolaren aldean.

Purube ontakoak dira emen ipintzera goazen Elgoibar'tar ospatsu abek.

Lopez eta Ganboa'ko Juan.— Araba'ko Ulibarri Ganboa'ko jauna-

(*) «Diccionario Heráldico de la Nobleza Guipuzcoana.»

ren semea, ta Gebara'ko etse ta Oñati'ko jaunaren billoba zan, eta ez-konduzan Olaso'ko jauregiaren etseandrearekin.

Errege Alonso Jakintsuak, Lopez'en etsietatik artuzituen ekurteak nolobait eskertunaiean, ernanzion 1267'ko urtean, Elgoibar'ko San Bartolomé de Olaso, Plazenzi'ko Done Martin, Eibar'ko Done Andres, eta Errezil'go Done Martin'go eleizan zuzejaundea.

Bi seme izanzituen; bat, Fernan Iañez de Ganboa, etsean jarraitu-zuena, ta bestea, Lope Fernandez de Ganboa, Zumaya'ko purube ta jauregian ezkonduzana; etse au izendatuzan gero Ganboa'ren etsea, ta bertan izantzan Preboste, Lope Fernandez.

Iañez eta Ganboa'ko Fernan.— Errege Santsok 1293'ko Jorrala'ren 3'an egindako gallaldiaren bitartez eman zikion oni len izendatutidugun eleizen zuzejaundeak.

Perez eta Ganboa'ko Ruy.— Errege Alfonso XI'garrenak eman zikion len esandako zuzenjaundeak, 1330'ko Agorra'ren 29'an. Ezkonduzan Atsega'ko Markesarekin (1).

Lopez eta Ganboa'ko Juan.— Zarauz'tar Ortiz'ko Pedro'ren alabarekin ezkonduzan.

Lopez eta Ganboa'ko María.— Aurrekoen alaba zan, eta Martin Ruiz de Abendaño Ballesteros'ekin ezkonduzan. Jaun au Enrike III'garren eta Juan II'garrenaren Mayor deitzenzitaion kargukoa, ta Araba'ko Billarreal eta bere erritsoen eta Abendaño ta Urkizu'ko etsien jauna zan. Martin Ruiz au, D. Fernando, gero Aragoi'ko errege izanzanaren laguntasunean zebilela, Antekera'ko irabaz bidean burni pozoitu batekin zaurituta illtzan.

Abendaño ta Ganboa'ko Fernando.— Iraeta'ko M.^a Beltran, Zes-tua'n zegoan Iraeta deitzenzioten purube ta jauregiko jaunaren alabarekin ezkonduzan.

Ruiz Abendaño'ko ta Ganboa Martin.— Enrike IV'garrenaren serbitzalle leiala, Gipuzkoa'n izantziran jaun argitsu ta zaldun bulartsu ta bikañenetakoa. Onek eta Lazkano ta Balda'ko jaunak, ditsidatuzituzten Gipuzkoa'ko zortzi erri 1456'an

Elgoibar'ko San Bartolomé de Olaso, Plazenzi'ko Done Martin, Eibar'ko Done Andres eta Errezil'go Done Martin'en zuzejaundea emantzioten.

(1) Markesa emakumearen izena da, ta Paulo'tik Paula egitendan bezela, lenago Markos'tik Markesa egitentzan.

Ezkonduzan Juana Ibañez, Gomez Gonzalez de Butron eta Muxika'ren alabarekin.

Lopez eta Ganboa'ko Juan.— **Martin Ruiz eta Juana Ibañez'en seme zarrena zan. Bi aldiz ezkonduari, eta 1516'garren urtean illzanean, Olaso'ko Done Bartolome'ko eleizan illobitua izantzan.**

Ruiz eta Abendaño'ko Bartolome.— **López eta Ganboa'ko Juan'en anaia zan Ezkonduzan Bergara'tar Rezabal'ko Juaniza'rekin, ta oen ondorengoank izantziran Bergara'n Olaso'ren Mayorazgoa sortuzutenak.**

Ruiz Abendaño'ko ta Ganboa Martin.— **Izantzan gudari onenetakoa. Lagunduzion Karlos V'garrenari Itali'ko gudetan, eta Alba'ko Dukeari 1512'an Naparro'ra joanzanean; gudaduzan Komuneroen kontra Billalarren, berak pagatutako 500 gizonekin; bi aldiz 2000 gizonekin Castilla'ra joantzan ta beste bein Naparrora 2.500 gizonekin bakea jartzera; beti bere kontura eramatenzituen gudariak.**

Bai ta ere menderatuzuen Ayala'ko Pedro, Salbatierra'ko Kondea, ta egiteko onen ordañez Enperadoreak emantzion Olaso'ko etsearen ezkutarmetan Kondearen armak jartzeko baimena. Ta jarrizituen.

Ezkonduzan Isabel de Belasko, Haro'ko irugarren kondearen alabarekin.

Abendaño'ko ta Belasko Prudenziio.— **Lagunduzion erregeari Tunez'ko gudan. 1542'an, Franzia'ko erregeak Gipuzkoa'n amiltzea eskiñi zuenean, Abendaño'ko Prudenziio plantatuzan berak pagatutako 500 gizonekin itsaso ertzak gordetzeko.**

Ezkonduzan Beaumont'eko Luisa'rekin

Abendaño'ko Diego.— **Bere aurrekoak bezelase, eskiñizion beti la guntasuna erregeri, ta gudaldi batean juanzan Portugal'a gudari asko bere kontura eramanaz. Franzisko Drake Bizkai'aren kontra etorrizanean, Abendaño'ko Diego mnaeatuzan Bizkaia gordotzitzeko ta Arabako Billarreal'en zeukan artilleria aterazuen andik, eta eramanzuen Lutsana'ko gaztelura, au gordezezan.**

Ezkonduzan Sarmiento'ko Luisa'rekin.

Abendaño'ko Isabel Anjela.— **Ordizia'tar (1) Zabala ta Arrue'ko Martin'ekin ezkonduzan. Jaun au Santiago'ren Ordenako Zalduna zan, eta illzan Madrid'en 1622'garren urteko Otsailla'ren 15'an**

Abendaño'ko Isabel, ondorengorik utzi gabe illtzan, eta bere izatekoak igaroziran Eskalante'ko Konde zan Gebara'ko Luis'en eskuetara.

(1) Ordizia da Villafranca'ren izen euskalduna.

Orrela bukatuzan ainbeste gallaldi izanzituen OIaso'ko purube ospatsua.

OIaso'ren etse onen adar batetik, jaoziran errege Fernando ta bere emazte Isabel'en egunetan, Teruel'en azalduziran OIaso'ak.

BESTE PURUBE BATZUEK.—Izendatudegun OIaso'ko jauregiagaz gañera, baziran Elgoibarren beste batzuek, tsit ospatsuak izanziranak, eta egokia iruditzenzaigu toki au, aien izenak Isasti'ren liburu bate-tik (1) artu ta ipintzeko.

Martinez eta Zabala'ko Juan'ek zeukan Karkizano'ko etsea, Arriaga'ko Sancti Spiritus 'i donkitutako bost elizmaiko eleizatso batekin; berak izendatzenzuen apaiza.

Esatenzutenez, artzenzitian erriagandik urtero 3.000 marabiri ta 38 anega ta bost lakari ta erdi, gari onenetakoetik; esatenzuten ere Deba-ibaian sabaloaren arrantza itsasoraño egin ahal izateko gallaldia zeukala, ta erirra eramatenzuten saskitik bere etserako nai zuen arrai guztia eramanezakela enparantzara eraman baño lenago, errian jartzen zioten prezioan.

Ibarra'ko Juan'en etseak zeukan 3.500 dukat'eko errenta.

Lopez eta Lasalde'ko Manuel'ek Altzola'n zeukan etseak ematenzitian 400 dukat.

Arriola'ren etseak, 500 dukat.

Gelansoro'enak, 300 dukat.

Zabala'ren jauregiak 200 dukat.

Amuskotegi'ren etseak 100 dukat'eko errenta ematenzuen.

MUJIKAKO GREGORIO.

(Bukatuko da.)



(1) «Compendio historial de Guipúzcoa.»

Elgoibar-ko albiste kondairatsuak



VII

Elgoibar'ko seme ospatsuak

EuskalERRI guztian gizon ospatsuak ugari izan dira. Toki guztietan, lan geienetan, euskaldunak gainkiratu dira beste errikoen aldean, baña gudetan, beste gauzetan baño errezago, altsadute beren izena bestien gañetik. Lenago gudaldietan igarotzen zuten gizonak astia, ta bulartsuak eta irmeak ziralako euskaldunak, betetzen zuten lurra beren izenen oiarzunarekin; baña gaur ez degu orrelako osperik billatu bear. Gipuzkoarren izena toki guztietan gizon langille ta leialarena bezela ibillidedilla, baña berriro odol itzultzearen oroimena ekarri bear badu isildudedilla betiko. Gorrotoarekin gogora bear ditugu orain Gipuzkoarrak gudaldien sustraiak eta ondorengoak, gauza guztien aurretik pakea bear degulako, Probintziaren edertasuna ta aurreramena gorde ta geitzeko.

Baña ala izan arren, igaroziran aldietan egin bearzutena eginzutenai ez diotegu oroimen bat ukatu bear. Ikusi dezagun bada, zer gizon ospatsu jaioziran Elgoibar'en Olaso'ko purubekoaz gañera, ta esan ditza-gun hi itz bakoitza zein zan argi jartzeko.

Altzola ta Konportaeta'ko Fray Domingo.— Elgoibar'ko Altzola'n jaiozan eta an eginzuen, bere tokian, esan degun bezela Done Juan Bautista deritzaion eleiza. Done Domingo'ren Ordenakoa zan, eta España Berriko Guadalajara'ko Apezpiku itzendatuzuten.

Altzola'ko Bartolome.— Karkizano'ko etsekoa ta gudarien buru irmea. Bapildeai donkitudiegun itzetan, esandegu Done Franzisko'ko otoiztegi batean dagoala Altzola'ko Bartolome'ren irudi bat.

Amuskotegi'ko Durango.— Erakusle ta ikaslea Oñati'n, eta Apezpikuaren ikastetse nagusiko ikaslea, Salamanka'n.

Amustegi'ko Fray Pedro.— Done Franzisko'ren Ordenakoa, ta Tolosa'ko Franzisko, Probintziaren aita ta Ordenaren buru zanaren goarpelaria

Arano y Arregio Migelez de Altzola y López, Franzisko.— Alcántata'ko Ordenaren Zalduna.

Arriola'ko Franzisko.— Donosti ta Ondarribi'ko presondegi ta galeretako ornitzallea.

Basarte'ko Juan.— Gudaldiko Batzarreko erregearen goarpelaria.

Eskalada ta Olaso'ko Garzigallo.— Erregearen goarpelaria, ta Felipe III'garrenaren laguntzallea.

Gabiola'ko Martín.— Calahorra'ko apez-nagusia.

Gabiola ta Zabala'ko Simon.— Galeoi ta itsasontzietako ordaintzallea.

Bere aide Arriola'ko Franzisko ornitzalleak, itzegintzion erregeari Gabiola'ren alde, armadako gudari talde baten buru izendatuzezan, eta esantzion Portugal'eko gudaldian izantzala, ta guztiz ederki ezagutzen zituala India, Franzia ta Flandes'eko itsas-bideak.

1582'garren urtean jaiozan, eta Santiago'ren Ordenako Zalduna zan.

Ibarra'ko Juan.— Au ere Karkizano'ko etsekoa ta gudarien agintzalle bikaña izantzan.

Iñigez eta Karkizano'ko Martin.— 1525'garren urteko Uztailla'ren 24'ean, Magallanes Maluko'ra joan eta lau urte geroago atera ziran, baita ere Maluko'rako zuzenkidarekin, beste sei ontzi, Loaisa'ko Fray Garzia Komendadorea agintari zutela. ta ontzi aietan, Urdaneta, Elka-ko ta Probintziko beste seme ospatsu batzuen artean, zijoatzen bi Elgoibartar; Iñigez eta Karkizano'ko Martin, Alguazil nagusi bezela ta Garzia ta Karkizano'ko Martin.

Coruña'tik irten eta andik urte batera, illtzan Loaisa Kapitana ta bere tokian ontzi aiek agintzeko Elkano, Getariko seme ospatsua jarrituzuten. Au ere beriala illtzan eta Salazar onen tokian izendatuzutena ere bai, ta itsas gizon aiek, ainbeste kapitanen eriotza ikusi ta naigabe asko igarota beren buruak larri ikusizituztenean, asmoak aurrera eramateko izendatuzuten agintari, len esandegun Iñigez eta Karkizano'ko Martin, eta ain bulardetsua izantzan guda guztietan, ain bildurgabea arerioen aurrean, eta, ainbeste kalte eginzien Portugaltarrai aiekin izanzituen eretsalde guztietan, ezik Tidor'ko ugartearen eskañi zioten baz-

kari batean ill zuten, Baldaya deitzen zioten batek eman zion pozoï baten bitartez. Errosario'ko Amaren eleizan lurperatua izantzan.

Karkizano'ko Sebastian.— Karkizano'ko etsekoa ta arma-gizonen ikustzalea zan, eta Malta'n bulartsutasun aundiarekin gudatzen arizala illzuten

Kruzelegi ta Arriola'ko Gabriel.— Galeoien Almirante, Santiago'ren Ordenako Zalduna, Sevilla'ko veinticuatro (1), Gudaldietako Batzarre Nagusiko bat, aizealdeko antzigudarien agintari, Filipinas'eko ugartetako gobernatzalle izantzan.

Bere gizontaldian kapitan euskaldun (2) argitsu asko izantziran. Ara emen batzuen izenak; Eskosta'ko Jose, Uriosola'ko Pedro, Franzisko Alvarez, Endaia'ko Bernardo, Abendaño'ko Pedro, Mugartegi'ko Matias, Franzisko de Leon y Leal, Kruzelegi'ko Juan Bautista, Mirafuentes'eko Andres, Herrera'ko Jose, Manuel González, Lorenzo Mesala, Franzisko Cariaga (au apaiz iltzan), Arriola'ko Jose, Martin Martinez de Tejada, Lukas Bais; «denak izantziran—esatendu Aita Kasimiro Diaz'ek—jeneral eta sarjento aurrerekoetakoak, eta ugarte oen alde lan asko egintzutenak». Galeoi ontan zetozen ere Urkizu'ko Mateo Lukas, Lorenzo Lázaro, Kapitan eta Kontramaestrea, ta Aranburu'ko Juan, guda askotan ibillitako Bizkaitar kalipuduna.

Kruzelegi'ko Gabriel, gobernatzalle bezela 1684'an joan zanean Filipinetara, tsit ederki ikusia izantzan ugartetan, eta oen alde eginzitan lanakgatik, eta ezdabaida guztiak erabakitzenzitan zuzentasunakgatik, oso maitezuten bere mendeko geienak. 1685'an azaldu zan baztanga, ta orduan ere Kruzelegi'ko agerian jarrizuen Filipinetarako zeukan naitasuna. Baña lur ontan areriorik gabe ezin bizilitekealako, Kruzelegi'k ere izanzituen bereak, eta Biga'ko Diego Antonio ta Bolibar'ko Pedro Sebastian, entzunleak, presondegitubearra izanzuen, bera agintaritzatik botatzeko alegiñak egitenzitzutelako.

Illzan 60 urte zituenean, 1689'ko Jorraiilla-ren 27'an gabeko amarretan.

Aita Kasimiro Diaz'ek, Conquistas de las Islas Filipinas'en,

(1) Veinticuatro, Andalucia'ko uri batzuetan errejidoreari ematen dioten izena da.

(2) Aita Casimiro Diaz'ek, Conquista de las islas Filipinas izendatutako bere liburuan, Bizkaitarrak zirala esatendu, baña badakigu Español geienak Bizkaitarrak deitzendigitela Euskaldun guztiak. ¡Ez-jakiñaren gauzak!

esatenditu itz asko Kruzelegi'aren alde. Aien artetik artzendentut, eta biurtzen ditut euskerara, abek:

«Burgos'ko Kristo doneari naitasun asko izantzion eta tsintso joa-
»tenzan ostiral guztietan eskeintzen zitzaion meza erestua entzutera
»Manila'ko gure eleizan, Kristo Donearen elizmaiaren oñean lurperatu
»zuten; berarekin batean lurperatuzan ere, irudi ari zeukaten debozioa,
»baño 20 urte igaro ta gero, berrituzan Ursua ta Arizmendi'ko Martin
»Lizarraga'ko Kondea agintari izantzan bitartean...

»Tsit negartua izantzan Gobernatzalle onen eriotza, bada ugarte
»oek idukidituztenen artean onenetakoa zan, agintzalle goienekoa za-
»teko beardiran argitasun guztiak zeuzkalako. Malsoa eta denai bere
»berdiñak baziran bezela begiratzenziena, elizakorra, ta gorputz tsikian
»biotz aundia zeukana zan. Aberastasunen alde tsit naitasun gutsi iza-
»tearen apaintasuna zeulak, emen, beste apaintasunaren artean aundiena
»dana, toki guztietan baño era geiago dauzkalako gutiziak gizona men-
»deratzeko. Gutsi iraunzuen ugarte oetan Kruzelegi'ren agintasanak;
»baliteke merezi etzutelako. Toki guztietan sentitzendira asko, onak
»ezdiran agintariak, eta maitatzendira gutsi tsarrak ezdiranak; baño
»aginketa ezin liteke beñere batzuen gaizki iritzitik urruti jarri, dena-
»ren poza egiteko lan zalla dalako agintzeko lana. Ontasuna galdu ta
»gero, obeto ezaguntzendalako, izantzan bere utsunea tsit negartua.
»Kruzelegi'ren azke-naien egille bezela, geldituzan Endaia'ko Tomas
»eta arkituzioten dirua etzan lurperatzeko elizkizunak egiteko, eta mi-
»raben soñeko beltzak ordaintzeko ainbat izan.»

Larrunbide'ko Eujenio.— Gerra ta marina'ko ministroaren ize-
nekoa izantzan, eta illzan milla zortzireun eta ogeita emezortzigarren
urtean.

Lopez e ta Galartza'ko Simon.— Galeoien ikustzallea Indinko ibil-
taldean.

Martinez Karkizano'ko Juan.— Magallanes'ko gudan ontzi baten
agintari izantzan.

Medina'ko Domingo.— Artilleriaren zenbatzallea Malaga'n.

Munibe'ko Andres.— Sevilla'n salerosteko zegoan etseko zenba-
tzalle nagusia.

Oliden'go Karlos.— Gasteiz'ko (1) apeznagusia izantzan. 1737'ga-
rren urtean Elgoibar'en egintziran Probintziko Batzarren agerkaia

(1) Vitoria' ren izen euskalduna da Gazteiz.

Oliden'ek esantzuela Batzar aietan Arria guztiz garbiaren sermoia, esatendute.

Santsez Karkizano ta Arriaga'ko Martin.— Errege Fernando V'garren eta bere emaztearen goarpelaria; gallaldi asko ardietsizituan bere etsearentzat.

*
* * *

Santiago'ren Ordena'ko Zaldunak izandiran seme askotso jaio dira Elgoibarren. Ara emen nere ezaguerara iritsidiranaren izenak: (2)

Aginaga ta Arana'ko Antonio.

Arano ta Olano'ko Domingo.

Arriola ta Alzate'ko Andres.

Arriola ta Amuzkotegi'ko Juan Antonio.

Gabiola ta Zabala'ko Simon.

Ibarra'ko ta Fernandez Andres.

Kruzelegi ta Arriola'ko Gabriel.

Ondarra ta Arregia'ko Franzisko.

Rekalde ta Ubilla'ko Jose.

BUKATZEKO

Nere lan laburra, onerañose iritsitzenda. Egun gutsi izan ditut, albiste abek bildu ta bear bezela jartzeko. Berri asko arkitu ta liburu aundi ta ondo idatzitutako batean ipintzea izangozan nere naia, baña argalak dira nere indarrak, tsikia nere jakintasuna. Noiz bait beste nor baitek, Elgoibar'ko berrik asti geiagorekin eta erri eder arrek eskatzen duen distiatasunarekin zabaldu nai baditu, gogoz eskeiñiko diot nere lan tsiki onen laguntasuna. Orrela, bakoitzak piska bat jarrita, ea noiz bait argi ipintzen degun euskeraz denoen artean, gure Euskalerrriaren antsinako izatea. Ori gertadedin, nere aldetik berri sorta au ekarriet; orain, geiago dakitenak isilik egon biarrian, osatudezatela.

MUJIKAKO GREGORIO.

(2) Seoane'ko Markes'ek argitaratukoduen liburu batetik artuditut izen abek. Eta berea ez arritzeko era etorri don ezker, ematendiozkat esker asko aukeratuzikidan erreshtasunakgatik.